672 778 598

## Zure kontaktuetan gorde

LAKUNTZAKO UDALA

# WhatsApp

## Lakuntzako Udalaren komunikazio kanal berria



### Herriko informazioa jaso nahi duzu WhatsApp bidez?

Lakuntzako Udalak WhatsApp aplikazioaren mezularitza-zerbitzuaren bidez herritarrei informazioa zabaltzeko beste bide bat jarri du martxan.
Zerbitzu berri honekin, arin, azkar eta kosturik gabe, nahi duten herritarrek informazio guztiaren berri izango dute: komunikazioak, kultur programazioa, jarduerak eta bestelako udal informazioa.

### Nola sartu zaitezke WhatsAppeko zabalkunde-zerrendan?

- Gorde kontaktuen zerrendan 672 778 598 telefonoa.
- Bidali whatsapp mezu bat ALTA hitzarekin.
- Une horretatik aurrera, udal-informazioa zabaltzeko zerrendan sartu eta WhatsAppeko mezuak jasotzen hasiko zara, komunikazioekin, kultura-programazioarekin, jarduerekin eta intereseko bestelako informazioarekin.

### Zer egin BAJA emateko?

- Bidali WhatsAppeko mezu bat BAJA hitzarekin.
- Udalak ahalik eta lasterren ezabatuko zaitu zabalkunde-zerrendatik, eta komunikazioak jasotzeari utziko diozu.

### Jakin beharreko informazio garrantzitsua:

- Ez da WhatsApp talde bat, hedapen-zerrenda bat baizik. Zure telefono zenbakia administratzaileak bakarrik ikusiko du.
- Udalaren intereseko informazioa jasotzeko prestatutako zerbitzua da hau. Mezuei eta deiei ez zaie inola ere erantzungo, ez da bi norabideko komunikazio-kanal bat izango.
- Ez du balioko izapideak, proposamenak, kexak edo iradokizunak egiteko. Horretarako, bitarteko eta bide ofizialak erabiliko dira: 948 57 60 15 telefonoa, info@lakuntza.eus posta elektronikoa edo egoitza elektronikoa.

### Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Emandako datuen tratamenduaren arduraduna Lakuntzako Udala da. Tratamenduaren helburua: hedapen-zerrenda kudeatzea. Eskubideak: www.lakuntza.eus udal webgunearen pribatutasun politikan eta egoitza elektronikoaren gardentasun atarian eskuragarri dagoen informazio zabalduan adierazten den bezala, titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta bestelako eskubideak erabil ditzakete. dbd@lakuntza.eus datuen babeserako ordezkariarekin ere jar zaitezke harremanetan. Edozein unetan bidali ahal izango duzu mezu bat "BAJA" testuarekin WhatsApp bidez, hedapen-zerrendan jarraitu nahi ez baduzu.

### ¿Quieres recibir información municipal mediante WhatsApp?

El Ayuntamiento de Lakuntza pone en marcha, una nueva vía de difusión de información a los y las ciudadanas a través del servicio de mensajería de la aplicación WhatsApp.
Con este nuevo servicio, ágil, rápido y sin coste, los vecinos y vecinas que lo deseen estarán informados de toda información: con las comunicaciones, programación cultural, actividades, así como otro tipo de información municipal.

### Cómo proceder para que tu contacto sea incluido en la lista de difusión de WhatsApp:

- Guarda en tu lista de contactos el teléfono 672 778 598
- Envía un mensaje de WhatsApp con la palabra ALTA.
- Desde ese momento se incluirá el número de teléfono en la lista de difusión de información municipal y empezarás a recibir mensajes de WhatsApp con las comunicaciones, programación cultural, actividades, así como otro tipo de información de interés municipal.

### Como proceder para darse de baja:

- Envía un mensaje de WhatsApp con la palabra BAJA.
- El Ayuntamiento procederá en la mayor brevedad posible a eliminarte de la lista de difusión y dejarás de recibir las comunicaciones.

### Información importante que debes saber:

- No se trata de un grupo de WhatsApp, es un listado de difusión. Tu número de teléfono solo lo verá el administrador.
- Este es un servicio habilitado para recibir información de interés municipal. En ningún caso se contestará a los mensajes ni llamadas, ni será un canal de comunicación bidireccional.
- No servirá para realizar trámites, propuestas, transmitir quejas o sugerencias. Para ello se seguirán utilizando los medios y canales oficiales: teléfono 948 57 60 15, correo info@lakuntza.eus o la sede electrónica.

### Información sobre protección de datos personales

Responsable del tratamiento de los datos facilitados (número de teléfono) es el Ayuntamiento de Lakuntza. Finalidad del tratamiento: gestión de la lista de difusión. Derechos: las personas titulares pueden ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión y otros derechos como se indica en la información ampliada que está disponible en la Política de privacidad de la web municipal www.lakuntza.eus y en el portal de transparencia de la sede electrónica. Puedes contactar también con el delegado de protección de datos dbd@lakuntza.eus En cualquier momento podrás enviar un mensaje con el texto “BAJA” a través de WhatsApp si no deseas seguir en la lista de difusión.